



6/2025. AKTA OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaiako herrian, 2025eko ekainaren 26an, arratsaldeko seietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Lehendakaria: Iñaki Ostolaza Esnal

Bertaratutakoak: Argi Yeregui Egaña
Aitor Manterola Garate
Marina Bidasoro Arozena
Asier Arakistain Alberdi
Maite Egaña Larrañaga
Itziar Etxabe Etxabe
Nerea Goiria Mendiola
Jose Miguel Antia Albizu
Joxe Mari Azkue Castillo
Ainhoa Illarramendi Azkue
Iker Mardaras Arrieta
Xabier Odriozola Etxaniz
Ander Olaizola Esnal
Mireia Aranbarri Ieregi
Duñike Agirrezabalaga Ugarte

Ez bertaratua: Unai Larrañaga Uranga

Idazkaria: Alexander Marañon Muñoz

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Hasiera emango diou. Unai atasko batian dao, ez da allatuko. Bueno, arratsalde on. Besteik Gabe hasiera emangoiou Ohiko Osoko Bilkurari.

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK

1.-AURREKO BILERETAKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA. (5/2025 zenbakia. 2025.05.29)

Maiatzeko Ohiko Osoko Bilkurako akta onartu dute aho batez.



2.- IRIZPENA

2.1.- UDALAREN 2024KO KONTU OROKORRAREN ALDEKO BEHIN BETIKO IRIZPENARI ONARPENA EMATEA, BIDEZKOA BADA 2025EKO MAIATZAREN 21EKO, KONTUEN BATZORDE BEREZIKO IRIZPENA ETA TXOSTENA, 2024KO KONTU OROKORRARI DAGOKION ONARPENA.

AURREKARIAK

1.- 2025eko martxoaren 14an 2024ko Udalaren aurrekontuaren likidazioa onartzen da.

2.- 2025eko maiatzaren 21ean, 2024ko Kontu Orokorra aurkezten da Kontuen Batzorde Berezian ekitaldian zehar burutu diren aurrekontu-eragiketak guztiak, aurrekontuz kanpokoak, ondarezkoak eta diruzaintzakoak jasotzen ditu eta kopuru eta kontzeptu garrantzitsuenak aztertzen dira.

IRIZPENA ETA TXOSTENA

Ondorioz, batzorde honek aldeko irizpena jasotzen du honako botoekin:

Aldeko botoak: 5 (2 EH BILDU, 2 EAJ, 1 PSE)

Abstentzioak:

Aurkako botoak:

Irizpen hau onartzea eta honako txosten hau azaltzea:

a- Jendaurrera azalduko da 15 egunetan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.3 artikulua arabera.

b- Jendurrean jartzeko epea amaitutakoan, erreklamaziorik edo eragozpenik aurkeztu ala ez, Udalbatzaren Osoko Bilkurara eramango da, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.4 artikulua arabera, hala badagokio, onartu ahal izateko, eta erreklamazioa edo eragozpena ebatziko da.

c- Kontu Orokorraren berri emango zaio Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, behar bezala onetsita, haren arautegian ezarritakoaren arabera, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.5 artikulua arabera.

Kontu Orokorra onartzea eta jendurrean jartzea erabaki du.



Zumaian, 2025eko maiatzaren 21ean

Batzordeburua

Kontu-hartzailea

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Ekarri gendun Osoko Bilkura honetara behin-behineko onarpena onartuta geratu zan. Helegite epealdia pasa ondoren ez da helegiterik aurkeztu. Beraz, ekartzen dugu behin-betiko onartzeko. Besterik gabe bozkatu egingo degu.

Aldeko botoak: 16 boto (9 EH BILDU, 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:

UDALAREN 2024KO KONTU OROKORRAREN ALDEKO BEHIN BETIKO IRIZPENARI ONARPENA EMATEA

2.2.- HEZKUNTZA SAILARI HAURRESKOLARAKO GELA BATEN LAGAPENA ESKATZEA

IRIZPENA

ZUMAIAKO UDALEKO HERRIA BATZORDEARENA HEZKUNTZA SAILARI AITA MARI ERAIKINEKO GELA BATEN LAGAPENA ESKATZEKO AURREKARIAK

2024ko udazkenean Zumaiako Haurreskola publikoek jakinarazi zuten udaberrian plazarik gabe gelditzeko arrisku handia zegoela eta herri plaza publikoen faltan geldituko zela.

Horren aurrean, 6. Unitate bat ireki ahal izateko aukerak aztertzen hasi zen Zumaiako Udala eta Herri Eskolarekin hitz egin ondoren, Aita Mari eraikineko psikomotrizitate geletako bat, modu errazean Haurreskolarako egokitzeko modua ikusi zen.

Horren ondoren 2025eko ekainaren 3an Haurreskolen Partzuergoarekin bilera egin zen, seigarren gela hori baimentzeko aukerak aztertzeko.



Partzuegoaren erantzuna baiezkoa izan zen, ez zegoela inolako arazorik badaezpadako seigarren unitate hori Herri Eskolaren eraikinean kokatzeko.

Hori ikusita, Zumaiako Udalak Hezkuntza Sailari behin behinean Aita Mari eraikineko psikomotrizitate gelaren lagapena egiteko esakera egingo dio behin behinean. Beti ere, Aita Mari eraikinean Haurreskola kokatzeko obrak egin bitartean.

Hau guztia horrela izanik Hezkuntza sailari egin beharreko eskaera Osoko Bilkuran onartzeko aurkeztuko da.

IRIZPENA

Ondorioz, 2025eko ekainaren 18ko Herria Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Aldeko bozka: 3 EAJ, 4 EH BILDU

Kontrako bozka: 0

Abstentzioa: 0

Aldeko irizpena irizpena eman du eta honako Proposamen hau Osoko Bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 22.2 eta 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo **PROPOSAMENA** egin da:

1.- Aita Mari eraikineko psikomotrizitate gelaren lagapena egiteko eskatzea Hezkuntza Sailari, bertan Haurreskolako seigarren unitatea kokatu ahal izateko prozedura hasteko.

2.- Akordio honen berri Hezkuntza Sailari helaraztea lagapen eskaeraren barruan.

Marina Bidasoro
Herria batzordeko burua

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Aitor, azaltzen baldin badiguzu pixkat.



AITOR MANTEROLA GARATE

Arratsalde on. Hau aurreko batzordian korrika ta presaka landu ber izan genun. Irizpena bozkatzeko ta gaia honea ekartzeko. Azkenian da herriko bi haurreskolak gela aldetikan justu xamar iristen dia, azkeneko bi urtetan esango nuke, kurtso erdialdea ta ordun gela bat gehio berko lukete, Ez? Gela hori Herri Eskolakin hitzein da Juleneko erainkinian badakate espazio bat gela bihurtu daitekena haurreskolako, baina klaro, lehenbizi ber genun partzuergoan baimena. Partzuergoa jun ginan, baimena eman ziguen baina baimena Udalak eskau ber dio Hezkuntza Sailai. Hezkuntza Sailak emateulako baimena. Ta nahi ta nahiez baimen hori eskatzeko Plenuak onartu in ber du eta ordun ba horixe da gaur honea ekarri deuna.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Eskerrik asko, Aitor. Zer bait komentatzeko? Bozkatu ingo dugu.

Aldeko botoak: 16 boto (9 EH BILDU, 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:

HEZKUNTZA SAILARI AITA MARI ERAIKINEKO GELA BATEN LAGAPENA ESKATzea

3.- MOZIOA

3.1.- "LGBT+ BIZITZEK BALIO DUTE" ADIERAZPENA

LGBT+ BIZITZEK BALIO DUTE

Maiatzaren 17an, LGBT+fobiaren kontrako egunean esaten genuena errepikatzen dugu Ekainaren 28an, LGBT+ harrotasunaren egunean. Harro gaudelako gure bizitez, harro gure bizi historiaz, harro LGBT+ mugimenduaz.

Komunikabide nagusien estigmatizazio saiakerek eta manipulazioak zein eskuin muturreko diskurtsoek cis-hetero arautik ateratzen diren bizitzak ezabatu nahi dituen honetan, inoiz baina garrantzitsuagoa da nondik gatozen ospatzea eta aldarrikatzea. Stonewalletik Euskal Herrira, milaka bizipen, galera, aldarrikapen eta lorpen izan ditugu, baina oraindik egiteko asko dago. Eraso LGBT+fobikoen datuak gora doaz,



armairuak presente jarraitzen du gure bizitzako arlo guztietan, diskurtso patologizatzaileak ugaritzen ari dira... eta ondorioz gure bizitzak arriskuan daude.

Honen guztiaren aurrean, antolatzea eta borrokatzea ezinbestekoa dugu. Gure kasuan, instituzioetatik politika publiko integral eta sendoak, perspektiba feministan oinarritutako zerbitzuak, babes kolektiborako eta autodefentsarako mekanismoak ezartzeko bideak... ezartzea ezinbestekoa dugu. Anekdotikoak diren politikak alde batera utzi, eta estrukturalak diren horiek erdigunean jartzeko garaia da.

Horregatik guztiagatik Zumaiako udalean konpromisoa hartzen dugu, **ZUMAIAKO LGTBI+ PERTSONEN BIZI BALDINTZAK HOBETZEKO NEURRI ETA POLITIKAK** jasotzen dituen plana garatzeko. Prozesu hau, herriko LGBT+ mugimenduko kideekin batera egin zen eta hemendik norbanako ezberdinak aktibatzeke modua sustatzen saiatuko gara.

Honez gain, dei egiten dugu Ekainaren 28aren bueltan antolatu diren ekimen eta mobilizazioetan parte hartzeko, eta amaitzeko, LGBT+ pertsonen bizitzak egunerokotasunean bizigarriak izateko, lan eta borrokatzen ari diren kide eta kolektibo guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu guztiak zoriondu nahi ditugu, harrotzeko moduko mugimendua osatzen dugulako. Gure bizitzek balio dutelako, gora ekainaren 28a!

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:
Irakurriko diguzu, Maite?

MAITE EGAÑA LARRAÑAGA:
Mozioa irakurri du.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:
Eskerrik asko, Maite. Galderaren bat edo komentarioren bat? Bozkatu egingo dugu orduan.

Aldeko botoak: 16 boto (9 EH BILDU, 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:

"LGBT+ BIZITZEK BALIO DUTE" ADIERAZPENA ONARTZEA

**4.- UDALBATZAKO ORGANOEEN KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA.****4.1.- 2025EKO 10. ETA 11. ERREPARO ORRIA ETA HAREN EBAZPENA JAKINARAZI****KONTU-HARTZAILEAREN ERREPARO ORRIA (10/2025):****AURREKARIAK:**

Kontu-hartzaileak, Zumaia Udaleko kontratuen egoeraz interesaturik honako kontratu hauek epez kanpo aurkitu ditu fakturei oniritzia ematerakoan:

KONTRATUEN ERANSKINA

Enpresa	Kontratututako zerbitzua	Data Kontratua	Iraupena	data amaitu
Eulen	Eguneko zentroa	01/02/2009	1 + 1	01/02/2011
UTE LV ZUMAIA	Kale garbiketa	11/01/2016	1+1	11/01/2018
Arazi IKT SL	Algorri kudeaketa	20/04/2016	1+1	20/04/2018
Kastore Gest S.L.	Hainbat zerbitzu	05/11/2009	2+1	05/11/2012
Serkonten	Edukiontzi higienikoak	01/11/2016	1	01/11/2017
Erreka	Ate automatikoen mantenua	01/10/2016		01/10/2017
Kalexka elkarte	Kale heziketa/esku hartze programa	01/07/2017	2+2	01/07/2021
GEZE IBERIA S.R.L.U.	Ate automatikoa mantenua	23/07/2019	1	23/07/2020
TECNOGYM TRADING S.A	Gimnasioko makinariaren mantenua			

Aplikagarria zaizkion arauak:

- 1) 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena + Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- 2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.
- 3) 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 4) 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duena.
- 5) RESOLUCIÓN de 2 de junio de 2008, de la Intervención General de la Administración del Estado, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 30 de mayo de 2008, por el que se da aplicación a la previsión de los artículos 152 y 147 de la Ley General Presupuestaria, respecto al ejercicio de la función interventora en régimen de requisitos básicos.
- 6) Resolución de 25 de julio de 2018, de la Intervención General de la Administración del Estado, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 20 de julio de 2018, por el que se da aplicación a la previsión de los artículos 152 y 147 de la Ley General



Presupuestaria, respecto al ejercicio de la función interventora en régimen de requisitos básicos en el ámbito de los contratos del sector público y encargos a medios propios.

Zehaztasunak:

21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

" 67. artikulua. Legezketasunaren kontrola."

1.- Kontu-hartze-eginkizunaren helburua, haren legezketasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haien eskubide eta betebeharrak ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasun publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:

a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontu-hartze kritikoa edo aurretiazkoa.

b) **Ordainketa-aginduaren erazko kontu-hartzea.**

c) **Ordainketaren kontu-hartze materiala.** Udalbatzaren erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontu-hartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoan erabilpenerako mankomunitatei erantsiko zaie.

"70. artikulua. Erreparoa."

1.- Kontu-hartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontu-hartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere erreparoa idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.

3.- Erreparoa gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetzea etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientean **funtszko beharkizun** edo izapidetak alde batetara utzi direnean.

4.- Erreparoa ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazi beharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.



Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua:

"218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak."

1. Kontu-hartzaitzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organo eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitua duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

3. Kontu-hartzaitzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»

32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzeko duena

12. artikulua. Eragozpenak.

1. Organo kontu-hartzaileak adierazten badu ez dagoela ados aztertutako egintza, agiri edo espedienteen mamiarekin edo formarekin, bere

eragozpenak idatziz azaldu beharko ditu. Eragozpen horiek irizpidea finkatzen duten arauetan oinarritutako arrazoibideen bitartez motibatatu behar dira, eta espedienteen jasotako oztopo guztiak barnean hartuko dituzte.

2. Baldin eta eragozpenak gastuen onespenerari edo xedapenerari, obligazioen onarpenari edo ordainketen aginduari eragiten badiot, espedientearen izapidea etengo da harik eta hura ebatzi arte, betiere 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotako kasuetan gertatzen denean.

3. Aipatutako 70.3 artikulua c) apartatuan jasotako kasuan, bidezkoa izango da eragozpen etenarazle bat azaltzea, honelakoak gertatuz gero:

a) Gastua onartzeko eskumenik ez duen organo bati proposatzen zaionean.



b) Obligazioaren onarpenaren frogagirietan irregulartasun larriak sumatzen direnean edo jasotzailearen eskubidea behar adina egiaztatzen ez denean.

c) Baldintzak edo izapideak ez betetzearen ondorioz egintza deuseztatuta gelditu daitekeenean edo, kudeaketa administratiboarekin aurrera jarraituz gero, toki entitateko diruzaintzari edo hirugarrenei diru galera ekarri ahal zaienean.

Korporazioko osoko bilkurak beste baldintza edo izapide osagarri batzuk onartu ahal izango ditu, organo kontu-hartzaileak txostena egin ondoren, eta haiek ere funtsezkotzat hartuko dira.

4. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen duenean, bertan jasotako akatsak zuzendu beharko ditu eta jarduketak berriro bidali beharko dizkio organo kontu-hartzaileari hamabost eguneko epean. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen ez duenean, aldiz, foru dekretu honetako 15. artikuluan xedatutako prozedura hasiko du.

5. Baldin eta espedientean akatsak gertatzen badira funtsezkotzat ez diren baldintzak edo izapideak eta 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotako gainerakoak ez betetzearen ondorioz, Kontu-hartzaileak aldeko txostena egin ahal izango du, baina, egintza eraginkorra izango bada, akats horiek espedientea onartu aurretik zuzendu beharko dira. Organo kudeatzaileak akats horiek zuzendu izanaren frogagiriak bidaliko dizkio organo kontu-hartzaileari. Baldin eta organo kudeatzaileak espedienteak aurrera jarraitzeko ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, eragozpena azaldutzat hartuko da, eta horrek ez du eragotziko, egoki deritzen kasuetan, foru dekretu honetako 15. artikuluan jasotako prozedura hastea. Organo kontu-hartzaileak Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidaliko ditu apartatu honetan jasotakoaren arabera azaldutako eragozpenen aurka hartzen diren ebazpen eta erabakiak.

b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:

FAKTURAREN DATA	FAKTURA ZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARNE
2025/5/12	176/2025	KALEXKA	Zumaiari arriskuan dauden edo egon daitezkeen gazte eta adingabeen kale hezitzaileen zerbitzuan egin diren ekintza gastuak	96,56
2025/5/22	250199	ARAZI IKT, S.L.	2025/04/01-2025/04/20 Algorri natur baliabideen interpretazio zentroaren kudeaketa	3.628,55
				3.725,11

ONDORIOAK:

a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira. Bestalde aipatu beharra dago hilero ordaintzen den kopuruaren garrantzia kuantitatiboa kontuan izanda, gizarte zerbitzuetako kontratua, hau da, eguneko zentroaren kudeaketa zerbitzuak lehentasuna eduki beharko luke kontratuen eguneratze prozesuan.

b) Momentuz, zerrendatutako faktura guztien ordainketaren izapidetzea etengo da Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei



dagokienez alkateak hartutako ebazpen guztien inguruan eta **puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

ALKATE EBAZPENA

AURREKARIAK

2025eko maiatzaren 30ean kontu-hartzaileak honako erreparo orria jakinarazi dit (10/2025)

Kontu-hartzaileak egindako txostenaren arabera, ohartarazten du Legezko esleipen prozedura jarraitu ez duten fakturak iristeaz gain, indarrean ez dauden kontratuak dituztenak ere iritsi direla.

b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:

FAKTURAREN DATA	FAKTURA ZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIKOA BEZA BARNE
2025/5/12	176/2025	KALEXKA	Zumaian arriskuan dauden edo egon daitezkeen gazte eta adingabeen kale hezitzaileen zerbitzuan egin diren ekintza gastuak	96,56
2025/5/22	250199	ARAZI IKT, S.L.	2025/04/01-2025/04/20 Algorri natur baliabideen interpretazio zentroaren kudeaketa	3.628,55
				3.725,11

ERABAKIA:

Beharrezkoak diren zerbitzuak ematen jarraitu ahal izateko dagozkien ordainketak egitea agintzen dut.

Alkatea



**KONTU-HARTZAILEAREN ERREPARO ORRIA (11/2025):****AURREKARIAK:**

Kontu-hartzaileak, Zumaiako Udaleko kontratuen egoeraz interesaturik honako kontratu hauek epez kanpo aurkitu ditu fakturei oniritzia ematerakoan:

KONTRATUEN ERANSKINA

Enpresa	Kontratututako zerbitzua	Data Kontratua	Iraupena	data amaitu
Eulen	Eguneko zentroa	01/02/2009	1 + 1	01/02/2011
UTE LV ZUMAIA	Kale garbiketa	11/01/2016	1+1	11/01/2018
Arazi IKT SL	Algorri kudeaketa	20/04/2016	1+1	20/04/2018
Kastore Gest S.L.	Hainbat zerbitzu	05/11/2009	2+1	05/11/2012
Serkonten	Edukiontzi higienikoak	01/11/2016	1	01/11/2017
Erreka	Ate automatikoen mantenua	01/10/2016		01/10/2017
Kalexka elkartea	Kale heziketa/esku hartze programa	01/07/2017	2+2	01/07/2021
GEZE IBERIA S.R.L.U.	Ate automatikoa mantenua	23/07/2019	1	23/07/2020
TECNOGYM TRADING S.A	Gimnasioko makinariaren mantenua			

Aplikagarria zaizkion arauak:

- 1) 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen + Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- 2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa.
- 3) 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 4) 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duena.
- 5) RESOLUCIÓN de 2 de junio de 2008, de la Intervención General de la Administración del Estado, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 30 de mayo de 2008, por el que se da aplicación a la previsión de los artículos 152 y 147 de la Ley General Presupuestaria, respecto al ejercicio de la función interventora en régimen de requisitos básicos.
- 6) Resolución de 25 de julio de 2018, de la Intervención General de la Administración del Estado, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 20 de julio de 2018, por el que se da aplicación a la previsión de los artículos 152 y 147 de la Ley General Presupuestaria, respecto al ejercicio de la función interventora en régimen de requisitos básicos en el ámbito de los contratos del sector público y encargos a medios propios.

Zehaztasunak:



21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

" 67. artikulua. Legezketasunaren kontrola."

1.- Kontu-hartze-eginkizunaren helburua, haren legezketasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haien eskubide eta betebeharrak ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasun publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:

a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontu-hartze kritikoa edo aurrekontuazkoa.

b) **Ordainketa-aginduaren erazko kontu-hartzea.**

c) **Ordainketaren kontu-hartze materiala.** Udaltzatzen erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontu-hartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoaren erabilpenerako mankomunitatei erantsiko zaie.

"70. artikulua. Erreparoa."

1.- Kontu-hartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontu-hartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere erreparoa idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.

3.- Erreparoa gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetzea etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientean **funtszko beharkizun** edo izapidetak alde batetara utzi direnean.

4.- Erreparoa ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazi beharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasanak arautzen dituen Legearen testu bateratua:



"218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak."

1. Kontu-hartzaitzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organo eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitua duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

3. Kontu-hartzaitzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»

32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena

12. artikulua. Eragozpenak.

4. Organo kontu-hartzaileak adierazten badu ez dagoela ados aztertutako egintza, agiri edo espedienteen mamiarekin edo formarekin, bere

eragozpenak idatziz azaldu beharko ditu. Eragozpen horiek irizpidea finkatzen duten arauetan oinarritutako arrazoibideen bitartez motibatatu behar dira, eta espedienteen jasotako oztopo guztiak barnean hartuko dituzte.

5. Baldin eta eragozpenak gastuen onспенari edo xedapenari, obligazioen onarpenari edo ordainketen aginduari eragiten badio, espedientearen izapidea etengo da harik eta hura ebatzi arte, betiere 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotako kasuetan gertatzen denean.

6. Aipatutako 70.3 artikulua c) apartatua jasotako kasuan, bidezkoa izango da eragozpen etenarazle bat azaltzea, honelakoak gertatuz gero:

a) Gastua onartzeko eskumenik ez duen organo bati proposatzen zaionean.

b) Obligazioaren onarpenaren frogagirietan irregulartasun larriak sumatzen direnean edo jasotzailearen eskubidea behar adina egiaztatzen ez denean.



c) Baldintzak edo izapideak ez betetzearen ondorioz egintza deuseztatuta gelditu daitekeenean edo, kudeaketa administratiboarekin aurrera jarraituz gero, toki entitateko diruzaintzari edo hirugarrenei diru galera ekarri ahal zaienean.

Korporazioko osoko bilkurak beste baldintza edo izapide osagarri batzuk onartu ahal izango ditu, organo kontu-hartzaileak txostena egin ondoren, eta haiek ere funtsezkotzat hartuko dira.

4. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen duenean, bertan jasotako akatsak zuzendu beharko ditu eta jarduketak berriro bidali beharko dizkio organo kontu-hartzaileari hamabost eguneko epean. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen ez duenean, aldiz, foru dekretu honetako 15. artikuluan xedatutako prozedura hasiko du.

5. Baldin eta espedientean akatsak gertatzen badira funtsezkotzat ez diren baldintzak edo izapideak eta 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotako gainerakoak ez betetzearen ondorioz, Kontu-hartzaileak aldeko txostena egin ahal izango du, baina, egintza eraginkorra izango bada, akats horiek espedientea onartu aurretik zuzendu beharko dira. Organo kudeatzaileak akats horiek zuzendu izanaren frogagiriak bidaliko dizkio organo kontu-hartzaileari. Baldin eta organo kudeatzaileak espedienteak aurrera jarraitzeko ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, eragozpena azaldutzat hartuko da, eta horrek ez du eragotziko, egoki deritzen kasuetan, foru dekretu honetako 15. artikuluan jasotako prozedura hastea. Organo kontu-hartzaileak Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidaliko ditu apartatu honetan jasotakoaren arabera azaldutako eragozpenen aurka hartzen diren ebazpen eta erabakiak.

b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:

FAKTURAREN DATA	FAKTURAZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARNE
01/04/2025	25FF099232	phs Serkonten S.A.U.	EDUNKINGAILU HIGIENIKOAK KIROLDEGIA APIRILA	63,90
2025/5/1	25FF108283	phs Serkonten S.A.U.	EDUNKINGAILU HIGIENIKOAK KIROLDEGIA MAIATZA	63,90
2025/6/2	208-2025	KALEXKA	MAIATZA. Zumaiako Gizarte eta hezkuntza arloa eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua	10.000,00
2025/05/330	250218	ARAZI IKT, S.L.	2025/04/21-2025/05/31 Algorri natur baliabideen interpretazio zentroaren kudeaketa	7.417,46
2025/5/5	25A0005	UTE LV ZUMAIA	MAIATZEAN Zumaiako udalerrian eginiko kale-garbitzua	34.060,87
2025/6/3	828/25	KASTORE GEST	Muntaiak eta desmuntaiak MAIATZA	1.004,15
				52.610,28

ONDORIOAK:

a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira. Bestalde aipatu beharra dago hilero ordaintzen den kopuruaren garrantzia kuantitatiboa kontuan izanda, gizarte zerbitzuetako kontratua, hau da, eguneko zentroaren kudeaketa zerbitzuak lehenatasuna eduki beharko luke kontratuen eguneratze prozesuan.

b) Momentuz, zerrendatutako faktura guztien ordainketaren izapidetzea etengo da Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei



dagokienez alkateak hartutako ebazpen guztien inguruan eta **puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

ALKATE EBAZPENA

AURREKARIAK

2025eko ekainaren 6an kontu-hartzaileak honako erreparorria jakinarazi dit (11/2025)
Kontu-hartzaileak egindako txostenaren arabera, ohartarazten du Legezko esleipen prozedura jarraitu ez duten fakturak iristeaz gain, indarrean ez dauden kontratuak dituztenak ere iritsi direla.

b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:

FAKTURAREN DATA	FAKTURA ZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARNE
01/04/2025	25FF099232	phs Serkonten S.A.U.	EDUNKINGAILU HIGIENIKOAK KIROLDEGIA APIRILA	63,90
2025/5/1	25FF108283	phs Serkonten S.A.U.	EDUNKINGAILU HIGIENIKOAK KIROLDEGIA MAIATZA	63,90
2025/6/2	208-2025	KALEXKA	MAIATZA. Zumaiko Gizarte eta hezkuntza arloa eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua	10.000,00
2025/05/330	250218	ARAZI IKT, S.L.	2025/04/21-2025/05/31 Algorri natur baliabideen interpretazio zentroaren kudeaketa	7.417,46
2025/5/5	25A0005	UTE LV ZUMAIA	MAIATZEAN Zumaiko udalerrian eginiko kale-garbitzua zerbitzua	34.060,87
2025/6/3	828/25	KASTORE GEST	Muntaiak eta desmuntaiak MAIATZA	1.004,15
				52.610,28

ERABAKIA:

Beharrezkoak diren zerbitzuak ematen jarraitu ahal izateko dagozkien ordainketak egitea agintzen dut.

Alkatea



IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Erreparorriak gaineratik azaldu ditu.

**4.2.- UDALAREN 9. 10. 11. ETA 12. KREDITU ALDAKETAK JAKINARAZI****KREDITU TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA****Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)**

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0100.227.163.00.01 2025	KALE GARBIKETA	702.594,20	53.270,77	649.323,43
1 0300.481.338.00.03 2025	SAN TELMO DIRU-LAGUNTZAK	7.000,00	4.057,00	2.943,00
	GUZTIRA	709.594,20	57.327,77	652.266,43

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0300.227.334.01.04 2025	MUSIKA ESKOLA KONTRATUA	453.559,76	5.170,80	458.730,56
1 0100.623.323.00.99 2025	EGUZKI PLAKAK SAGARBIDE-DEBEGESA	0,00	29.505,65	29.505,65
1 0300.226.338.00.96 2025	SAN TELMOTAKO FESTAK	68.000,00	4.057,00	72.057,00
1 0100.622.173.00.96 2025	SANTIAGOKO ARRAPALA (ULO)-PSTD	200.000,00	18.594,32	218.594,32
	GUZTIRA	721.559,76	57.327,77	778.887,53

* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

Zumaian,

Alkatea



KREDITU TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA

Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0100.623.323.00.99 2025	EGUZKI PLAKAK SAGARBIDE-DEBEGESA	29.505,65	29.505,65	0,00
GUZTIRA		29.505,65	29.505,65	0,00

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0100.722.323.00.99 2025	EGUZKI PLAKAK SAGARBIDE-DEBEGESA	0,00	29.505,65	29.505,65
GUZTIRA		0,00	29.505,65	29.505,65

* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

Zumaian,
Alkatea



KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 1000.717.454.00.01 2025	SAN LORENTE BIDEA KONPONTZEA-LANKIDETZA	0,00	20.447,60	20.447,60
GUZTIRA		0,00	20.447,60	20.447,60

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.920.00.01 2025	DIRUZAINZA GERAKINA GASTU OROKORRETARAK	20.447,60
FINANTZAKETA GUZTIRA			20.447,60

KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

Zumaian,
Alkatea



KREDITU TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA

Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0100.227.163.00.01 2025	KALE GARBIKETA	649.323,43	9.916,46	639.406,97
	GUZTIRA	649.323,43	9.916,46	639.406,97

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0600.226.170.00.98 2025	KONTZIENTZIAZIO ETA SENTSIBILIZAZIO KANP	5.000,00	2.756,10	7.756,10
1 0100.629.173.00.01 2025	KANTINARAKO ONTZI GARBIGAILUA+FRIGOA	4.600,00	7.160,36	11.760,36
	GUZTIRA	9.600,00	9.916,46	19.516,46

* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

Zumaian,
Alkatea

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

9. kreditu aldaketa 37000 eurokua da eta da kale garbiketa kontratotikan murrizten dian 53000 euro ta San Telmotako dirulaguntzak 4057 eta gehitzen da dirulaguntzatik gasto partidetara kopuru hori. Baita ere musika eskolako kontratuan gehitzeko 5170 euro, Sagarbiden eguzki plakak lizitatu ahal izateko ba gehikuntza bat egin behar zan aurrekontuai 29500 eurokua ta berdina gertatzen da Santiagoko arrapala lizitatu ahal izateko.

10. kreditu aldaketa 29303. Berrero da aurreko kreditu aldaketaren zuzenketa bat. Azken finean egin zan kreditu aldaketa, 6. Kapituluua, inbersioetara, baina nola Debegesak lizitatuko dun 7. Kapituluuan izan behar zun ta hori da hemen zuzentzen dana.

11. kreditu aldaketa 20447kua. Eta hau diruzain gerakinetikan ateatzen da eta bideratzen daSan Lorenteko bidea konpontzeko lankidetzara. Lankidetz hau egiten



Zumaia Udala

2025IAKU0006

da Zestoako udalarekin. Azken finean, ba bueno, bidia Zestuko lurretan da baino baserriak Zumaiko lurretan daudenez ba orduan hitzarmen baten bidez adostu genun erdibana egitea konponketa hori.

12. kreditu aldaketa 9916 eurokoa. Kentzen da kale garbiketarik eta erabiltzen da kontzientziazio eta sentsibilizazio kanpainari gehitzeko 2756 eta gero Itzurungo kantuan matxuratuta zeuden bi elektrogalbigailua ta frigorifikua erosi ahal izateko.

4.3.- ALKATE EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkateak ebazpenen berri eman du.

5.- ESKARI-GALDERAK

Eskari galderik ez daonez, informazioa: bihar hasten dia San Pedro jaiak. Hemen bihar arratsaldeko seiretan egongo da txupinazua. Danak gonbidatuta zaudete. Eta baita ere, San pedro bezperan, larunbatian 8retan egongo da bandera igoera hemen omenaldi batekin. Beraz, gonbidatuta zaudete baita ere etortzeko guztiok. Ta besterik gabe ondo pasa festak eta hurrengo hilearte. Agur.

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko seiak eta hamaika direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Zumaian, 2025eko uztailaren 2an

Idazkaria
ALEXANDER MARAÑON MUÑOZ

Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus • e-mail: udala@zumaia.eus



EKS | CSV: ESKUfa303ad6-87a5-4a58-a817-3e819dc03e30

Egiatzatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=08110>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=08110>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2025IAKU0006-Dokumentu orokorra/Documento genérico ()